

Euskal AEn hotel-establezimenduetako sarrera eta ostatu-gauen kopurua, 2021eko irailean, aurreko urtekoen bikoitza baino handiagoa izan da

Udan (uztaila, abuztua eta iraila), % 74,5eko gorakada egon da sarreretan, 2020ko udarekin alderatuta, eta % 81,3koa ostatu-gauetan, baina ez dira lortu 2019ko udako maila berak

Euskal AEko hotel-establezimenduetan 2021eko irailean erregistratu diren sarrerek eta ostatu-gauak gora egin dute, eta 269.420 eta 526.927 izan dira, hurrenez hurren, Eustaten datuen arabera.

Hotel-sektorearen suspertzea, 2020ko irailarekin alderatuta, % 107,2koa izan da sarrerren kasuan, eta % 110,9koa, ostatu-gauen kasuan. 2019ko irailarekin alderatuta, berriz, zifra baxuagoak lortu dira, % 15,0 sarrerren kasuan eta % 16,1 ostatu-gauenean.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia. 2021eko iraila

	Sarrerak		Gualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2021/09	m/m-12 (%)	2021/09	m/m-12 (%)	2021/09	2020/09
EUSKAL AE	269.420	107,2	526.927	110,9	1,96	1,92
Estatukoak	169.717	70,0	338.222	74,9	1,99	1,94
Atzeritarrak	99.703	230,2	188.705	234,3	1,89	1,87
ARABA/ÁLAVA	34.413	90,2	68.141	98,9	1,98	1,89
Estatukoak	25.369	64,5	51.201	75,4	2,02	1,89
Atzeritarrak	9.044	238,3	16.940	235,0	1,87	1,89
Vitoria-Gasteiz	24.156	102,3	50.967	110,4	2,11	2,03
BIZKAIA	121.024	143,5	230.460	132,2	1,90	2,00
Estatukoak	78.480	92,1	151.259	86,6	1,93	1,98
Atzeritarrak	42.544	381,0	79.201	334,6	1,86	2,06
Bilbao	80.623	154,9	152.257	155,9	1,89	1,88
GIPUZKOA	113.983	83,2	228.326	96,4	2,00	1,87
Estatukoak	65.868	51,3	135.762	63,4	2,06	1,91
Atzeritarrak	48.115	157,6	92.564	179,1	1,92	1,78
Donostia / San Sebastián	68.773	88,7	142.867	109,9	2,08	1,87

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Araban, 34.413 sarrera eta 68.141 ostatu-gau erregistratu dira irailean, aurreko urteko hil berean baino % 90,2 eta % 98,9 gehiago, hurrenez hurren. Bizkaian, 2021eko irailean, sarrera-kopuruaren igoera % 143,5koa izan da, eta, ostatu-gauen kasuan, % 132,2koa; guztira, 121.024 eta 230.460 izan dira, hurrenez hurren. Azkenik, Gipuzkoan, 2021eko irailean, 113.983 sarrera eta 228.326 ostatu-gau izan dira; urte arteko igoera % 83,2koa izan da sarreretan eta % 96,4koa, ostatu-gauetan.

2021eko iraileko batez besteko egonaldia 1,96 egunekoa izan da, 2020ko hil berean baino pixka bat handiagoa (1,92), eta 2019ko irailekoaren oso antzekoa (1,98 egun).

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2021eko iraila

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2021/09	p.p.*	2021/09	p.p.*	2021/09	m/m-12 (%)	2021/09	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	54,7	24,7	65,1	26,6	91,53	27,6	59,59	115,7
ARABA/ÁLAVA	50,3	18,0	63,9	21,9	77,17	26,0	49,31	91,6
Vitoria-Gasteiz	50,8	15,9	67,5	20,1	64,68	20,6	43,69	71,9
BIZKAIA	51,4	25,3	61,2	25,9	77,09	29,1	47,14	123,7
Bilbao	54,7	29,2	63,3	29,4	84,46	37,3	53,44	156,9
GIPUZKOA	60,2	26,4	70,2	29,2	110,86	28,1	77,81	119,2
Donostia / San Sebastián	64,9	30,8	74,5	34,4	137,41	32,6	102,30	146,5

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Iraileko okupazio-mailak direla eta, Euskal AEn, oro har, plazen arabera neurtuz gero, % 54,7koa izan da, eta % 65,1koa, gelen arabera neurtuz gero. 2020ko irailarekin alderatuta, gorakadak ehuneko 24,7 eta 26,6 puntukoak izan dira, hurrenez hurren.

Errentagarritasuna, ADR edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtua, Euskal AE osoan, 91,53 eurokoa izan da. Lurralde historikoaren mailan, Gipuzkoa nabarmentzen da, 110,86 euroekin; ondoren, Araba, 77,17 euroekin, eta, azkenik, Bizkaia, 77,09 euroekin. Hiriburuen arabera, ADRak Donostia / San Sebastiánen gora egin du eta 137,41 eurokoa da, Bilbon 84,46koa eta Vitoria-Gasteizen 64,68 eurokoa. Ondorioz, urte arteko igoerak handiak izan dira, besteak beste, % 20,6koa Vitoria-Gasteizen eta % 37,3koa Bilbon.

RevPar-a, Euskal AE mailan, 59,59 eurokoa izan da. Gipuzkoaren kasuan, 77,81 eurokoa; Araban, 49,31 eurokoa, eta, Bizkaian, 47,14 eurokoa. 2020ko hil berarekin alderatuta, ehunekoaren igoerak erakusten du hobekuntza argia izan dela sektorean, besteak beste, Bilbon urte artean % 156,9ko gorakada izan da eta, Vitoria-Gasteizen, % 71,9koa.

Udako balantzea: 2021eko uztaila, abuztua eta iraila

2021eko uda honetan erregistratutako sarrera eta ostatu-gauen kopuruak 2019ko udan –COVID-19aren aurretik– erregistratutako balioak baino baxuagoak izan dira, % 8,3 eta % 10,7 baxuagoak, hurrenez hurren. 2020ko udarekin alderatuta –pandemiari aurre egiteko hartutako neurriak izan dira bereizgarri–, zifra horiek % 74,5eko igoera erakusten dute sarreretan, eta % 81,3koa, ostatu-gauetan.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia. 2021eko uda

	Sarrerak					Gualdiak					Batez besteko egonaldia		
	2021	2020	2019	2021/2020 (%)	2021/2019 (%)	2021	2020	2019	2021/2020 (%)	2021/2019 (%)	2021	2020	2019
EUSKAL AE	919.268	526.814	1.002.048	74,5	-8,3	1.876.104	1.034.737	2.100.567	81,3	-10,7	2,04	1,96	2,10
Estatukoak	611.596	366.008	503.872	67,1	21,4	1.300.384	745.608	1.091.773	74,4	19,1	2,13	2,04	2,17
Atzeritarrak	307.672	160.806	498.176	91,3	-38,2	575.720	288.829	1.008.794	99,3	-42,9	1,87	1,80	2,02
ARABA/ÁLAVA	127.212	69.140	131.995	84,0	-3,6	242.309	127.921	255.986	89,4	-5,3	1,90	1,85	1,94
Estatukoak	96.110	54.049	82.581	77,8	16,4	191.728	103.659	171.831	85,0	11,6	1,99	1,92	2,08
Atzeritarrak	31.102	15.091	49.414	106,1	-37,1	50.581	23.962	84.155	111,1	-39,9	1,63	1,59	1,70
Vitoria-Gasteiz	89.066	43.207	89.893	106,1	-0,9	173.328	83.414	181.795	107,8	-4,7	1,75	1,92	2,02
BIZKAIA	404.317	197.540	478.167	104,7	-15,4	820.965	397.875	963.372	106,3	-14,8	2,03	2,01	2,01
Estatukoak	275.118	149.082	243.341	84,5	13,1	579.222	307.752	506.317	88,2	14,4	2,11	2,06	2,08
Atzeritarrak	129.199	48.458	234.826	166,6	-45,0	241.743	90.123	457.055	168,2	-47,1	1,87	1,86	1,95
Bilbao	264.467	121.845	299.673	117,1	-11,7	535.074	230.784	594.039	131,9	-9,9	1,93	1,88	1,98
GIPUZKOA	387.739	260.134	391.886	49,1	-1,1	812.830	508.941	881.209	59,7	-7,8	2,10	1,96	2,25
Estatukoak	240.368	162.877	177.950	47,6	35,1	529.434	334.197	413.625	58,4	28,0	2,20	2,05	2,32
Atzeritarrak	147.371	97.257	213.936	51,5	-31,1	283.396	174.744	467.584	62,2	-39,4	1,92	1,80	2,19
Donostia / San Sebastián	229.901	155.319	220.625	48,0	4,2	499.248	308.331	516.357	61,9	-3,3	2,08	2,14	2,34

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2021eko udako hil horietan izan diren sarreren % 33,5 atzeritarrei dagokie, 2020ko udako % 30,5ekin alderatuta. 2019ko udan, berriz, atzeritarren sarrerak kopuru osoaren % 49,7 izan ziren. Ostatu-gauen kasuan, balioak antzekoak izan dira: 2021eko udan, % 30,7 atzeritarrena izan da; 2020ko udan, % 27,9, eta, 2019ko aldi berean, % 48,0.

Araban, sarrerek % 84,0 egin dute gora, 2020ko sarrerekin alderatuta, eta % 3,6 behera, 2019ko aldi berarekin erkatuta. Ostatu-gauak 2020ko udakoak baino % 89,4 handiagoak izan dira, baina 2019koak baino % 5,3 txikiagoak.

Bizkaian, 2020ko udarekin alderatuta, sarrerek % 104,7 egin dute gora, eta ostatu-gauak, % 106,3. 2019arekin alderatuta, zifretan % 15,4ko beherakada egon da sarreren kasuan, eta % 14,8koa, ostatu-gauetan.

Gipuzkoan, 2020ko udako hil beren aldean, sarrera-kopuruak % 49,1 egin du gora eta ostatu-gauenak, % 59,7. 2019ko udarekin alderatuta, sarrerek % 1,1 egin dute atzera eta ostatu-gauak, % 7,8.

2021eko udan, Euskal AEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia 2,04 egunekoa izan da, 2020ko udan erregistratutakoa baino pixka bat altuagoa (1,96 egunekoa izan zen), baina 2019ko udakoa baino baxuagoa (2,10 egunekoa izan zen).

Informazio-oharra: Hotelen ETHiren estaldura % **90,7**koa izan da irailean. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62